

Ibarretxeren kabineteko hamar sailburuek karguaren zina egingo dute gaur

EAEko lehendakari berriak adierazpen instituzional bat irakurriko du ondoren

Erredakzioa / Gasteiz

Juan Jose Ibarretxeren kabineteko hamar sailburuek karguak hartuko dituzte gaur Ajuria Enean egingo den ekitaldian. Datorren asteartean lehen Gobernu Kontseilua egingo dute eta lehendabiziko izendapenak onartuko dituzte.

HAMAR sailburu eta lehendakariorde bat izango ditu Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Guztiek karguaren zina egingo dute gaur eguerdian Ajuria Enean egingo den ekitaldi batean, eta ondoren familia argazkia aterako dute jauregiaren aurrean.

Ekitaldiak, gainera, sailburu berrien lehen asmoak ezagutzeko balioko du. Idoia Zenarruzabeitia lehendakariorde eta Ogasun sailburua, Xabier Balza Herrizaingo sailburua, Josu Jon Imaz Industria arduradun eta Jaurlaritzako eleduna eta Iñaki Gerenabarrena Nekazaritza eta Arrantzako sailburua dira Ibarretxek ekarri dituen aurpegi berriak. Inazio Oliveri (Hezkuntza) Alvaro Amann (Garraioa), Sabin Intxaurre (Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza), Patxi Ormazabal (Etxebizitza), Mari Karmen Garmendia (Kultura) eta Iñaki Azkuna (Osasuna) aurreko gobernutik datoz, eta orain errepikatu egingo dute.

Karguaren zina egin ostean, Juan Jose Ibarretxek adierazpen instituzional bat



JOSEBA OLALDE

Juan Jose Ibarretxek karguaren zina egin zuen joan den larunbatean, sailburu izango dituenek lagundurik.

irakurriko du Ajuria Enean, lehendakariatzako iturriek jakinarazi dutenez.

Gobernu kontseilua asteartean

Karguaren zina egin ostean sailburuak lehendakariarekin bilduko dira, lehen Gobernu Kontseiluan. Hala ere, argazkiak egiteko besterik ez du balioko, benetako lehen bilera datorren asteartean izango baita.

Egun horretan, lehen izendapenak egingo ditu Ibarretxeren kabinetek. Batzuk, jada, ezagutzen hasi dira. Mikel Legarda izango da

Herrizaingo sailburuordea, hau da, Ertzaintzaren arduraduna. Legardak 42 urte ditu, Bilbon jaioa da eta orain arte Balza sailburuaren aginduetara egon da Jaurlaritzan, Garapen Autonomikorrako zuzendaria izan baita. Orain ere Balzaren bigarrena izango da.

Gaurko ekitaldian Jose Antonio Ardanazaren kabineteko sailburuak eta Ibarretxek izendatu dituenak izango dira. Halaber, Legebiltzarreko Mahaiko kideak bertan izango dira. Lehendakariak izendapenak egiteko dekretuak irakurriko ditu banan bana eta hauek karguaren

zina egingo dute. Ondoren familia argazkia egingo dute, eta sailburuek lehen adierazpen publikoak egingo dituzte, gehienbat legegintzaldirako asmoak zeintzuk diren agertzeko.

Gerenabarrena eta Amann legebiltzarkideak dira, Arabako zerrendan aurkeztu baitzuten alderdi jeltzaleak. Orain kargu hori utzi egingo dute, atzo jakinarazi zuten. Paulino Corcuera eta Covadonga Solagurenek hartuko dituzte haiek utzitako lekuak, hauteskundeetako zerrendan hurrengoak zirelako. EAJko iturriek adierazi dutenez, sailburutzan burubelarri aritzeko utziko dute parlamentario kargua. Gerenabarrenak, gainera, Gasteizko Udaleko zinegotzi izateari ere utziko dio.

Gasteizko gobernuaz «harro» dagoela adierazi du Ipar Buru Batzarrak

EUSKO Alderdi Jeltzaleko Ipar Buru Batzarrak (IBB) adierazi du «harrotasunez» jaso duela EAEko gobernuaren osaeraren berria, «EAJk bultzatu duen abertzaletasun demokratikoaren garaipena baieztatu baitute azken hauteskundeak». IBBk, Juan Jose Ibarretxek Gobernuak hartutako egindako hautua txalotu ondoren, bereziki azpimarratu du Josu Jon Imaz izendatu izana Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu. «Postu klabe horrek Josu Jon Imazen kalitatea eta Europako egituretan egindako lana saritu du. Izendapen horrek, exekutibo berriak Ipar Euskal Herriari begira duen irekidura indartu besterik ez du egiten», adierazi du Iparraldeko alderdi jeltzaleak. x

Presoen Euskal Herriratzea galdegin du Cohn-Bendit Berdeen buruzagiak

DANIEL COHN-BENDIT, heldu diren Europako hauteskundeetako Frantziako Berdeen zerrendaburu eta 68ko maiatzeko pertsona ezaguna, euskal presoen Euskal Herriratzea galdegiten duen kanpainarekin bat agertu dela jakinarazi du Iparraldeko Presoen Sustengu Komiteen Koordinakundeak. Datorren urtarrilaren 16an Parisen egitekoa den manifestaldia dela eta, euskal presoen eskubideak eta etxetik hurbilen dauden presondegietan espetxeratua izateko printzipioa defenditzen dituen manifestuarekin bat egin du Cohn-Bendit Berdeen ordezkariak. x

EAJ eta EA Europako hauteskundeetara begira

Europa Press / Gasteiz
EAJk urtarrilean negoziatu nahi du Eusko Alkartasunarekin Europako hauteskundeetarako zerrenda bateratua osatzea. Hauteskundeak ekainean izango dira, eta orain arte koalizio ezberdinetan joan dira Euzko Alderdi Jeltzaleak CC, PAR, UV, UM eta Partido Andalucistarekin du hitzarmena batera aurkezteko, eta Carlos Garaikoetxearen alderdiak ERCrekin du koalizioa.

Europa Press agentziari egindako adierazpenetan, Ricardo Ansotegi EBBko

idazkariak esan zuen joan den abenduan jakinarazi ziola EAri batera aurkezteko asmoa, eta EAren eskariz negoziazioa atzeratu egin dela urtarrila arte.

Euzkadi Buru Batzarreko idazkariaren arabera, orain EAJ «jarrera positiboagoa» hartu du batera aurkezteko, koalizioa eginez beste alderdiekin. EBBko kideak, hala ere, baztertu egin du koalizio handi horretan CiU eta BNG sartzea, nahiz eta uste duen ideia hori litzatekeela «one-na».

EAJk, CiUk eta BNGk, haatik, programa komuna

aurkeztuko dute, hala erabaki baitzuten Santiago (Galizia) iazko udazkenean egin zuten bileran. Bilera hartan, gainera, erabaki zuten estaturik gabeko nazioen europarlamentarioek talde bat osatzea Europako Legebiltzarrean.

Alderdi hauen helburua zortzi europarlamentario lortzea litzateke. CiUk hiru lortuko litzateke, BNGk bat eta EAJk zuzenduko lukeen koalizioak hiru. Koalizio horri PA (Alderdi Andaluzista) erantsiko zaio eta horrela laugarrena izatea espero dute.